

# UGAZ-AMA



Ur atepak dituzte  
arraultzak egiten,  
bañan chito jayotzen  
ez dute jakizen;  
ez utzizeagatik  
arraza galdutzen  
ugaz-amatzat ollo  
bat dute artutzen.

Olluak beretzako  
arraultzak arturik,  
beraren luma-pean  
gustora gorderik,  
naitasun ederrian  
ondo gogaturik,  
munduratutzen ditu  
chito biurturik.

Gero gustora ditu  
guztiyak azitzen,  
bere ondotik inoiz  
ez ditu utzitzen;  
jankai goşorik badu  
lurrean billatzen,

umechoari dena  
baitiyo partitzen.

Abek grñaz urera  
nola diran sartzen,  
amak ur bazterretik  
diye begiraten;  
aunditurik sasoyak  
diranian jartzen,  
orduan ditu amak  
bakarrik lajatzten.

. . . . .  
. . . . .  
. . . . .  
. . . . .

Chito chikicho ayek  
oidiran modura,  
umezurtz asko dira  
azitzen mundura;  
. . . . .  
argatik ugaz-amak;  
mundu ontan dira  
jasotzeko aurchuak  
magalen erdira.